

Lope de Aguirre; 460 urte

Urriak 27an, Lope Agirreren omenezko irudiaren aurrean ekitaldi bat egingo dugu. Bertan, Agirre oñatiar (besterik demostratzen ez den artean) errebeldea, duela 460 urte Espainiako Erregeren armadak erail zuela gogoratu eta salatu nahi dugu.

Horrez gain, Loperen matxinada goratuko dugu eta aipatu Espainiar historiografiak behin eta berriz zikindu duela oñatiarraren errebolta, psikopata doilor bat besterik ez zela izan idatziz. Arrazoi politikorik izan ez balu bezala; injustiziaren aurrean, Agirre buru, Marañoiek antolatu zuten altxamendua odolzale baten eldarniotzat salduz. Euskal historiografiak berriz, ahaztuta eduki du, edo kolonizatzailetzat hartu (salbuespenak salbu: Ispizua, Oteiza).

Lope Agirre ez zen Ursuarekin ontziratu Dorado-a aurkitzeko; hark buruan zeukan palazio urrekara, askatasunaren jauregia zen. Ameriketara urteetan jasan zuen tratuak eragin zion oldarrak bultzatuta, Erregeri errebelatu eta Hegoamerikako Iparralde guztian nagusitu nahi izan zuen, Marañoiak lagun. Horretarako Amazonas osoa zeharkatu eta, Margarita irlatik, kontinentera iritsi zen, bosmila kilometro eta ia urtebeteko odisea arriskutsuan.

Gaur egungo Venezuelara iritsita, Espainiar inperio boteretsuari (itsasoaz besteladeko metropoliari), eta haren buru zen Felipe II.ari, gerra totala deklaratu zion, guztiz aparteko erabakimen gunea eratu nahian. Europaren aurrean independentzia politiko osoa! Horregatik izendatu zuen Simon Bolivarrek Ameriketako Askatzaileen aitzindari. Eta horregatik, era sistematiko batean, baztertu du Espainiar historiografiak; eta baztertu ez duenean, hiltzaile zoro bat aipatu digute, ia animalia bat, bere alaba ere hil zuena. Guk ez dugu Espainiaren bertsio ofizialik sinisten (ez orain eta ez lehen); horregatik Elvira Agirre hil zuenik ere zalantzan jartzen dugu. Auskalo ala izan zen edo ez!

Espainiak ez zion barkatu Felipe II. Erregeri eskutitz lotsagabe hura idatzi izana, ez zion barkatu antolatu zuen atzera bueltarik gabeko desafio gogorra, "rebelde hasta la muerte". Horregatik erail zuten, horregatik debekatu zuten bere izena inon aipatzea eta horregatik moztu zioten burua eta burdinazko kaiola batean sartu, gorputza laurkitu eta bazterretan esegi. Mila bostehun eta hirurogeita batean izan zen, urriak 27an; zigor ejenplarra, inork haren biderik ez hartzeko abixua!

Espainiak Elkano eta Urdaneta behin eta berriz aldarrikatu eta goretsi ditu; Agirrerik inoiz ez; guk bai!

Gora Lope Agirre errebeldea, gora Marañoien matxinada!